

Be Veggie2023 Irizpideak

1. **Elikadura:** Elikadura % 100 begetala, hau da, animalia jatorriko edo deribatuetako osagairik gabeko produktuak, animalia jatorriko produkturik erabili gabe ekoiztutakoak (testatzea barne). Produktua beganoentzako egokia dela egiaztatzeko, produktu bakoitzaren indarreko ziurtagiriaren kopia bidali beharko da ("begano" kategoriaren V-Label zigilua, adibidez) edo, halakorik ezean, produktu bakoitzaren fitxa teknikoak eta ekoizpen-prozesuan animalia-jatorriko produkturik erabili ez duela egiaztatzen duen dokumentu bat.
2. **Beganoentzako kosmetika** .INCIren konposizioak ezin du animalia jatorriko osagairik izan. Ez da kosmetikorik edo osagairik onartuko esperimendazio fase ezberdinetan zein azken produktu gisa animalietan saiakuntzak egin baditu.

Ondorengo erakunde ofizialetako batek behintzat produktu ekologiko gisa egiaztatutako kosmetika: Ecocert, Natrue, Bio Inspecta, BDIH, Soil Association, Cosmos, Cosmebio, Demeter, etab. Beharrezkoa da erakunde jaulkitzailearen egiaztatze ofiziala aurkeztea.

Kosmetika naturala da INCIren konposizioa osatzen denean landare-jatorriko osagaiekin (olio esentzialak, landare-olioak, lore-estraktuak, fruituak, sustraiak, etab.) o mineral-jatorrikoekin (ura, buztina, gatzak, etab.). INCIren konposizioa aurkeztu behar da.

Debekatuta daude ondorengo osagaiekin egindako kosmetikoak:

- Petrokimikoen deribatuak (parafinak, PEGak, silikonak, tentsioaktiboak, sintesi-lurrinak, etab.)
 - Ez da onartzen sintesi kimiko hutsaren bitartez lortutako osagaiak erabiltzea, ezta genetikoki aldatutako organismoetatik eratorritakoak (OMG)
3. **Ehun-gaiak eta osagarriak:** animalia jatorriko osagairik ez duen arropa, oinetakoak eta osagarriak.
 4. **Habitat osasuntsua.** Osasun-aldetik egokiak diren produktuak onartzen dira, osagai toxikorik ez dutenak eta zero hondakina bultzatzen dutenak. Produktu horien konposizioak ezin du animalia jatorriko osagairik izan. Ez da produkturik onartuko esperimendazio fase ezberdinetan zein azken produktu gisa animalietan saiakuntzak egin baditu. Atal honek barne hartzen ditu garbiketa produktuak eta detergenteak, dieta % 100 begetala errazten duten sukaldarako lanabesak, zero waste produktuak, etab.
 5. **Ostalaritza eta Turismoa.** Pertsona beganoentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten ostalaritza eta turismoko establezimenduak.
 - 6.
 6. **Argialetxeak eta argitalpenak.** Ikusgai jarriko diren liburuek, aldizkariak eta egunkariak BE VEGGIE 2023ren atal guztietako gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: osasuna, jasangarritasuna, animalien eskubideen babesa edo dieta % 100 begetala.